



BARREN

TOKIKOM

# Normaltasun berrirantz



## *Jose Ignacio Torres Ibañez*

2020ko apirilaren 15ean hil zen, 63 urte zituela.

***Eskerrik asko elkarrekin bizi izandako guztiagatik.  
EPAn izan dituzun ikasle eta lankideen gogoan betiko.***



## *Jose Urrutia Etxabe*

*"Martinaundi"*

2020ko apirilaren 21ean hil zen, 86 urte zituela.

***Elgoibartarra izatiaz  
ziñan oso harro  
Martinaundi ziñala  
denei esatia ez zan batere arraro  
esku haundi horiekin  
egin zenittun makiña bat esku-lan oparo  
zoaz lasai, gizona  
zure semea zure zain dago.***

Etxekoak




I. URTEURRENA

## *Araceli Uria Retolaza*

2019ko apirilaren 19an hil zen, 48 urte zituela.

***Zure oroimena  
beti izango da gure bihotzetan.***

Etxekoak



## *ETXEALDITIK EUSKARALDIRA amaitzen denerako*

**Koronabirusak etxean egotera derrigortu gaitu.**

Inoiz baino egun eta ordu gehiago pasatzen dihardugu etxekeekin; horregatik Etxealditik Euskaraldira ekimena. Gure etxeke hizkuntza-ohituren gaineko gogoeta egiteko, askotan ez baikara konturatzen zelan berba egiten dugun.

**Gure etxeetan euskara gehiago erabiltzeko dauden aukerak identifikatzeko gonbita izan da.**

Esango diguzue, nahi baduzue, gure proposamena gustatu zaizuen. Eta, batez ere, esango diguzue zuen etxeke hizkuntza-ohituraren bat aldatzea lortu duzuen.

**Etxeko hizkuntza-ohiturak aldatzea ez da erraza. Hasieran kostatzen da; barregarria ere izan daiteke uneren batean, baina lor daiteke, nahi bada.**

Etxekeekin daukagun lotura eta harremana zenbat eta sendoagoa izan, orduan eta zailagoa da aldaketa. Zailagoa eta aberatsagoa. Etxekoak gure bizitzako parte garrantzitsuak dira.

**“Nik nahi dut, baina gurasoak ez dira animatzen!”. Egiezu euskaraz gurasoei, ulertzen badute, eta laga beraiei nahi duten moduan erantzuten. Zuk egin duzu zeurea.**

*Etxealditik Euskaraldira domekan amaituko da, baina astelehenean etxean topatuko ditugu etxekeak.*

**Aukera polita daukagu EUSKARA eta ETXEA euskaldunon territorio libreak direla erakusteko.**



elgoibar@euskaraldia.eus



625 709 365



facebook.com/euskaraldiaelgoibar



twitter.com/EuskaraldiaElg2



instagram.com/euskaraldiaelgoibar



T.me/euskaraldiaelgoibar



EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa

## Zer ikasi dugu krisi honetan?

asmatzen dituenak bai izango du sari aparta. Gure helduen zaintza ez dugu lanbide baliotsu eta profesionaltzat hartzen, zaintza edonork egin baitezake; honela, lan baldintza lotsagarrietan mantentzen ditugu eta zerbitzu hauek urruneko gestioan dirua egin asmoz kudeatzen dituztenak azpikontratatu kudeatzen ditugu.

Adinekoen zentroen gestioa, gure aiton-amonen begiradetatik urrun egiten da, haien izen eta historiaren ezagutzarik gabe, eta honek kostu handia izan du oraingoan. Profesionalki kategoriarik gabe daude langileak, erakundeak bestaldera begira daude, presioa egiteko garaian ere zaintzen dituzten pertsoneri lotuta daude profesionalak eta tripak estutzen zaizkie lan geldialdi batek adinekoen zaintzan izango lukeen eraginaren jakitun

direlako. Horrela egon dira, bakar-bakarrik, babesik gabe, birusaren arrisku handieneko fokuan lanean; adinekoen familia-historiak hainbestetan entzunda etxeok hiltzen ari zaizkiela sentitzen dute.

Ez dituzte guk gure etxeok goxotasunetik bidalitako txalok behar; aldarrikapenak foru aldundiko herri partaidetzako bideetan egitea behar dute, Udaletan etxez etxeok laguntzarako ezarritako baldintzak zeintzuk diren galdetzea eta hobekuntzak lortzeko herri mugimenduak sortzea. Gure historiako momentu latzenak bizi izan dituztenek, gure eskubide sozial askoren bultzatzaileak izan direnek, azken duinagoa merezi dute, eta hori ziurtatzeko indarra egitea geuri dagokigu; osasuntsu eta eroso gaudenoi dagokigu borroka, ez baitugu gure biziraupena arriskuan jartzen.

Sarri irakurri dut garai hauetan Covid-19ak ez duela klase bereizketarik egiten, baina nik uste baiez-tapen honen akats nagusia birus bat subjektu bihurtzea dela. Dugun estruktura sozialaren zirrikutuetatik dabil birusa; zuzorik handienak dauden arloetan izan du eraginik handiena. Zaintza lanari baliorik ematen ez dion gizarte batek ez ditu adinekoen zaintzaileak saritzen, baina besteen galeretatik irabazteko trukoak

*“Gure historiako momentu latzenak bizi izan dituztenek, gure eskubide sozial askoren bultzatzaileak izan direnek, azken duinagoa merezi dute”*

 <p><b>BARREN</b></p> <p>ARGITARATZAILEA:</p>  <p><b>ELGOIBARKO IZARRA</b> Euskarazko Argitaratzailea</p>	<p><b>Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR</b> 943 744 112</p> <p><b>Publizitatea: 943 743 704</b> <a href="mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus">barren.publi@elgoibarkoizarra.eus</a> <a href="mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus">barren@elgoibarkoizarra.eus</a> <a href="http://www.barren.eus">www.barren.eus</a></p> <p>BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. <b>KOORDINATZAILEA</b> Ainhoa Andonegi <b>KAZETARIAK</b> Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia <b>HIZKUNTZA ARDURADUNA</b> Ainara Argoitia <b>PUBLIZITATEA</b> Leire Rubio <b>MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA</b> Zalao Arnaiz <b>ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA</b> Aitor Lauzirika <b>ADMINISTRARIAK</b> Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro <b>KOLABORATZAILEAK</b> Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olai-zola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade <b>INPRIMATEGIA</b> Gertu Koop.E. <b>TIRADA</b> 4.885 ale <b>LEGE GORDAILUA</b> SS-1.038/92 <b>ISSN</b> 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p>  <p><b>ELGOIBAR</b> URDIA AUZOLANA</p> <p>LAGUNTZAILEAK:</p>  <p><b>MENDIARRO</b> 1981</p>  <p><b>Gipuzkoako Foru Aldundia</b></p>
--	---	--

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ▶ AZKARATE GARBI

Azkaraten egin nahi den Hondakin "Ez Arriskutsuen" Kudeaketarako Plantari dagokionez, alkateak egindako azken adierazpenek jarrera aldaketa bat dagoela ikusarazten dute. Berri ona den arren, zuhurtziaz hartu beharreko hitzak direla iruditzen zaizkigu, izan ere, orain arteko ekintza eta kontraesanek betetako deklarazioek beste helburu bat baitzuten.

Azkoitiko Udalaren lana herriaren interesak defendatu eta ongizatea bermatzea da, eta garbi daukagu horrelako planta bat martxan jartzeak onurak beharrez kalteak ekarriko lituzkeela. Gure etorkizuna dago jokoan, gure ingurunea, osasuna eta bizikaltitatea hain zuzen. Beraz, eskatutako bilera egitea onartu bada ere, alkateari posizionamendu eta jarrera garbi bat har dezan eskatu nahi diogu herritarren interesak defendatu eta bermatzeko.

Adostasun osorik ez dagoela garbi ikusi da, herritar eta beste alderdi politiko batzuk argi adierazi duten bezala. Hori dela-eta, alkateak eta bere alderdi politikoak zaborteziaren proiektu hau publikoki bertan behera gelditzen dela adieraz dezatela eskatzen dugu. Horrela ez den bitartean, auzotarrok borrokan jarraituko dugu.

Bukatzeke, Azkarate Garbi Plataformari eta herritarrei eskerrak eman nahi dizkiegu, jarrera aldaketa hau ez bailitzateke posible izango beraien kolaboraziorik gabe. Egutero herri osoan zehar entzun dira lapiko-jotzeak eta honek ere garbi erakusten du Azkoitiko gainerako herritarrek ere Azkarate garbi nahi dutela, hondakinik gabe.

Guztion artean lortuko dugu Azkarate garbi mantentzea!

Azkarate Garbi auzotarra

### ▶ ZURI, ELENA

Makaltxo ikusi zintudan azkenengoan. Ez kezkatzeko, okerrago ere egonda zinela erantzun zenidan; eta nik, sinistu. Zergatik ez? Trantzerik gogorrenetan erakutsi duzun indarrak babestuko zintuela pentsatu izan dut beti. Latza kolpea! Betiko joan zarela jakin eta, berehala, oroitzapenak bor-bor. Txikitako kontuak, badakizu:

Eskola: Ez zinen, ez, matematikan makala!. Lagunak: Zenbat saltsa!. Aspertu bestela... Auzoa: Zertarako Txankakua pasa Santa Klaran dena izanda?. Errotatxo: Amamari bisita. Bide batez, ixil-ixilik, errekan sartu-irtena (zapaburuak, harriak, putzuak...). Eta zure akordeoia, eta gure musika, eta mendi bueltatxoak, eta parkeko jolasak eta amaigabeko berrialdia, eta San Juan suak, eta aldatzen genituen liburak, eta gorrotatzen genituen irakasleak, eta estimatzen genituenak, eta..., eta inori kontatuko ez dizkiodanak. Gogoratzeak malkoak ateratzen dizkit, baina mina arintzean merezi bezala gogoratuko zaitut: munduko begirik politenak dir-dir, irribarrez, urtebetetzea astebete aurretik zoriontzen (noiz ez zara, bada, lehena izan?). Adiorik ez, bihotzean betiko. Etxekoentzat zuri emangabeko musua.

Maite Gabiola


### ▶ ESKERRIK ASKO

Errotaberriko eta inguruko bizilagunon partez eskerrak eman nahi dizkiogu Asier Rodriguezi, egutero 20:00etako txaloen ostean dultzainarekin pieza eder bat jo eta une zoragarri bat pasaratzen digulako. Horrela jarrai dezala. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez".

Errotaberriko eta inguruko bizilagunak

## Maria Asuncion Mendikute Zubiaurre

2020ko apirilaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.



**Hil zara, baina biziko zara  
zu beti gure gogoan.  
Itxaropena dugu, biltzeko  
berriz zurekin zeruan.**


Bizilagunak



## Maiatzaren 4an hasiko da normaltasun berrirako trantsizioa, lau fase izango ditu eta ekainaren amaierara arte luzatuko da

Martitzenean aurkeztu zuen Pedro Sanchez Espainiako Gobernuko presidentek konfinamendutik irteteko bide-orria. Plana astelehenean hasiko da, lau fase izango ditu, eta ekainaren amaierara arte luzatuko da ondo bidean, eta gehienez, uztailearen erdialdera arte. Fase horren barruan hainbat neurri iragarri zituen, baina bada bat eztabaida handia piztu duena: deskalatzea amaitzen den arte ezingo dela probintzia batetik bestera mugitu. Ekainaren azkenetik aurrerako "normaltasun berrian" jarduera ekonomiko guztiak zabalduko dituztela aurreratu zuen Sanchezek, baina babes-neurriak eta urruntze soziala derrigor zaindu beharko direla, gaitzari erremedio terapeutikoa edo birusaren kontrako txertoa aurkitu bitartean. Arduraz jokatzeko dagokigula nabarmendu zuen: «Orain zailena dator. Beharrezkoa da une oro jarduera sozialeko eta mugikortasunerako arauak betetzea, birusa kontrolpean mantentzea».

Deskalatzea "asimetrikoa" izango da, probintzia bakoitzaren arabera. Batzuek azkarrago egingo dute normaltasunerako bidea, baina Sanchezek argi laga zuen gerta daitekeela uneren batean atzera egin behar izatea ere, egoera okertuz gero. Deskalatzeko hori "mailakakoa eta asimetrikoa" izanda ere, konfinamendutik irteteko bide-orria Ministerioaren koordinazioan egingo dela zehaztu zuen eta Osasun Ministerioaren jarraibideak bete beharko direla Espainiaren menpeko lurralde osoan. Horren harira esan zuen protagonista nagusiak herritarrek izango direla eta fase batetik bestera igarotzeko irizpide "objektiboak eta publikoak" hartuko dituztela kontuan: besteak beste, lurralde eta toki bakoitzeko osasun arreta (izan ambulatorioetakoa zein ospitaleetakoa) nola dagoen, Zainketa Intentsiboan Unitateetan libre dauden ohe-kopurua eta



epidemiaren bilakaera zein den. Hasteko, eta joan zen zapatuan iragarri zuen moduan, maiatzaren 2tik aurrera, kalera irtentzen ahal izango dira helduak ere bakarka kirola egitera nahiz pasiatzera, baina horretarako beste baldintzak ez zituen zehaztu. Era berean, jarduera ekonomiko batzuei "zirrikitu" zabalduko zaie. Adibidez, jatetxeek aukera izango dute jantziak prestatzeko, ondoren bezeroek etxera eraman dezaten. 0 fasea izango da hori.

### 1. fasea

Beste saltoki batzuk zabalduko dituzte, "segurtasun baldintza zorrotzen pean". Ezingo dute zabaldu, hala ere, parke komertzialek, jende pilaketa handiak izateko arriskua saihesteko. Fase honetan, ostalaritzan terrazak ireki ahal izango dira, edukieraren % 30eko mugarekin, baita hotel eta ostatu turistikoak ere, "eremu komunak alde batera lagata". Sanchezek azaldu duenez, horietan denetan 65 urtetik gorakoentzako lehentasuneko ordutegia ezarriko dute. Era berean, nekazaritzako elikagaien eta arrantzaren sektoreak bere jarduerari ekin ahal izango die berriro eta kultu-lekuak irekiko dituzte, edukiera heren batera mugatuta. Aldi berean errendimendu altuko kirolariak entrenatzen hasi ahal izango dira, eta liga profesionala ere hasiko da, "ahal bada". Fase honi dagokionez esan zuen maskarak erabiltzea oso

gomendagarria izango dela garraio publikoan, baina ez derrigorra, eta gurtza edo erlijio zentroak zabaldu ahal izango direla, edukiera herenera mugatuta.

### 2. fasea

Ehiza baimenduko dute eta zinematik eta antzokiak zabalduko dituzte, baina okupazioa %30era mugatuta. Era berean, monumentuak edo erakusketak bisitatzea posible izango da, baina aurrekoen baldintza berean. Areto itxietan 50 pertsona baino gutxiago elkartzeko kultur ekitaldiak baimenduko dira, baina aretoaren edukiera heren batekoa izango da. Aire librean, berriz, 400 pertsona baino gutxiago biltzen diren ekitaldiak baimenduko dira, beti ere ikusleak eserita baldin badaude. Otoitz-lekuak ere zabalduko dira, okupazioa erdira ekarrita. Hezkuntzari dagokionez, ikasturte berria irailean hasiko da, baina ikastetxeek aurrez zabalteko aukera izango dute, hiru kasutan: ikasleek selektibitatea egiteko, errefortzuetako eskolak emateko eta zeinek zaindu ez duten 6 urtez azpikoak hartzeko.

### 3. fasea

Azken fasean, mugikortasunerako debekua kendu, eta mugak maldutuko dira. Saltokietan, edukieraren erdia baimenduko da.

## COVID-19aren ondorioei erantzuteko mahaia eratzea proposatu du Elgoibarko EH Bilduk

Elgoibarko EH Bilduren ustez premiazkoa da eragile politiko, ekonomiko eta sozialen mahaia edo foroa eratzea, Elgoibarren koronabirusak sortutako krisi larriari aurre egiten hasteko. Ezker soberanistak dio dagoeneko "izugarriak" direla COVID-19a udalerriko ekonomian eragin duen kalteak, eta horiei "edukiekin eta herritarren interesak lehenetsita" egin behar zaiela aurre esan dute alderdiko arduradunek. Zentzu horretan, "ulertezina eta sinestezina" iruditzen zaio Elgoibarko Udalak "neurririk hartu gabe eta ezer egin gabe" jarraitzea. Alarma Egoera ezarri zenetik zazpi aste igaro direnean, Elgoibarko Udalak ia ez duela jardueraseinalerik eman salatu du EH Bilduk. Egoera larri honek askoz ere ekintza politiko eta enpatia handiagoa eskatzen duela diote. Bestalde, COVID19aren ondorio latzei aurre egiteko proposamenak dituztela aurreratu dute, Elgoibarko alderdi eta eragile ekonomiko eta sozialekin eztabaidatu eta adostu nahi dituzten proposamenak. Hala, gogorarazi dute Elgoibarko Udalaren finantza-egoera ona dela, eta, beraz, ezinbestekotzat jo du baliabide horiek ahalik eta hobekien baliatzea, guztion parte-hartzearekin interes orokorrera itzuliko diren planak egiten, eta beti pertsonak politika publikoen erdigunean jarriz.

### Konfinamenduak iraun bitartean udal zergak eta tasak ez kobratzeko eskatu dio Ahal Dugu Podemosek Elgoibarko Udalari

Itxita dauden negozioei udal zerga eta tasak ez kobratzea eskatu dio Ahal Dugu Podemosek Elgoibarko Udalari. Elgoibarko Ahal Dugu Podemosek argitu du Elgoibarko Udalak 2020. urterako Zerga Egutegian aldaketak onartu zituela, apirilaren 6an alkateak sinatutako dekretu bidez. Aldaketok Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituzten gero, apirilaren 16an. Iragarkian adierazten denez, Covid-19k sortutako osasun larrialdi egoera eta alarma egoera kontuan izanda hartu du Udalak zerga egutegia aldatzeko erabakia, herritarrei eta enpresei zergen ordainketa errazteko: "Hasiera batean uste dugu herritarrei, saltokiei, negozioei eta enpresei laguntzeko neurriak izango lirakeela: tasa eta zerga batzuen kobrantza ezabatzea. Baina ez da horrela, neurri horiek duten irismena baloratuz gero, ikusten baitugu zerga gehienak mantentzen direla eta batzuk bakarrik atzeratzen direla, gero osorik kobratzeko. Zerga horiek guztiak ez kontuan hartzea eta ez kobratzea eskatzen dugu, konfinamenduak irauten duen bitartean eta negozioak itxita dauden bitartean gutxienez. Uste dugu hori dela laguntzeko modu egokia", adierazi du Ahal Dugu Podemosek. Beraz, Covid19ren ondorioz itxierak eragiten dien denda eta enpresei zaborkobrantza kentzeko, eragindako enpresa eta lokalei JEZ %50 murrizteko eta eguenetako azoka, Merkatu Plaza eta terrazen gaineko tasak ez kobratzeko eskatzen dute.



### Ana Maria Etxabe Ostolaza

2020ko apirilaren 25ean hil zen, 71 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



### Ana Maria Etxabe Ostolaza

2020ko apirilaren 25ean hil zen, 71 urte zituela.

**Gaztetako lagunak.  
Maitasunez.**



## 'www.elgoibarzaindu.com' webgunea jarri du martxan Txankakuak herriko merkatarietara bonoak erosteko

Konfinamenduan itxi behar izan duten merkatarietara laguntzeko [www.elgoibarzaindu.com](http://www.elgoibarzaindu.com) webgunea sortu du Txankakua merkatari elkarteak, eta plataforma horren bidez salduko dituzte erosketak-bonoak. Bonoak erosteko erabilzaileak erregistratu egin beharko du lehenik. Ondoren, denda aukeratu eta bonoak erosteko aukera egongo da. Bakoitzak nahi adina bono erosi ahal izango ditu. Ordainketa egin ondoren, erosketaren konfirmazio mezu elektronikoa jasoko dute e-postan. Dendak berriro irekitzen direnean, posta elektronikoa jasotako konfirmazio mezu hori eta NANA erakutsi beharko dira bonoa trukatzeko. Aukeratutako establezimenduan soilik trukatu ahal izango da bonoa. Zenbatekoa bonoan jartzen duen berdina edo handiagoa izan daiteke, baina erosketaren zenbatekoa bonoa baino txikiagoa bada, ez da dirurik itzuliko. Kasu horietan erosketak txartel bat emango zaio bezeroari, hurrengoan beste erosketak egin dezan. 20€ eta 50€ euroko bonoak erosi ahal izango dira eta 2020ko abenduaren 31ra arteko epea jarri dute bonoak trukatzeko. Elkartetik esan dute herritarren babesa behar dutela merkatarietara txikiari bultzada emateko: "Denon bultzada behar dugu Elgoibar bizi dadin eta auzokideen elkarlana oso garrantzitsua da. Orain inoiz baino gehiago utz ezazu zure konfiantza Elgoibarko dendetan".

### Inoiz baino lan gehiago aurkeztu dituzte Elgoibarko Udalak antolatutako idazlan lehiaketara

Kultura, Euskara, eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailen bitartez antolatu du Udalak idazlan lehiaketa, ikasleen artean euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko, eta aurtengo ekitaldian inoiz baino lan gehiago batu dituzte: 199 lan jaso dituzte guztira, iaz baino 34 gehiago. Epaimahaia herriko literaturzale eta idazleek osatu dute, hala nola, Jasone Osorok, Jon Eugik eta Iñigo Otañok, eta esan dutenez, maila ona erakutsi dute ikasleek. Bestalde, DBHn eta Batxilergoan izan den parte-hartzea ere nabarmendu dute, aurreko edizioekin alderatuta, bereziki, Batxilergoan, nabarmen igo delako parte-hartze kopurua eta horrek izugarri poztu ditu bai epaimahaikideak eta baita antolatzaileak ere. Guztira 28 lan saritu dituzte, kategoria desberdinetan, eta epaimahaikideek esan dute kasu batzuetan zaila egin zaiela lanak aukeratzeko. Sarituek diplomak, liburuak, eta Txankakua elkartearen establezimenduetan erabiltzeko erosketak-bonoak jasoko dituzte opari, baina, oraino, ezingo da sari-banaketa ekitaldirik antolatu, beraz, aurrerago izan beharko da. Hauek izan dira sarituek: Leire Vazquez Crespo, Irati Oiztegui Ugarteburu, Ane Cearsola Zuazubiskar, Unax Ansola Arrieta, Asier Orbea Ribera, Ortzi Rodriguez Aguayo, Elene Ansola Irazabal, Iñigo Merino Corbillon, Goiuri Marcos Etxebarria, Markel Ortiz Etxebarria, Ainara Roman Trinidad, Duna Santos Otegi, Estitxu Arregi Ansola, Ibon Macazaga Idarraga, Naroa Ansola Ansotegui, Elene Castañares Fernandez, Nora Arzamendi Arocena, Mikel Sastre Estarta, Odriozola Gurrutxaga, Kira Zubizarreta De Sousa, Malen Ulazia Loiola, Miren Serrano Korta, Malen Etxura Gonzalez, Naroa Rodriguez Aramburu, Maddi Arriola Mendieta, Markel Goenaga Urain, Paula Anchustegui Iglesias, Jurdana Alberdi Regil.

### 36ko gerran Elgoibartik eta Mendarotik kanporatutako emakume eta umeak omenduko dituzte irailean



Elgoibartik eta Mendarotik kanporatutako emakume eta hurrei omenaldia egiteko asmoa du Elgoibar1936 taldeak, irailaren 26an, Olasoko hilerrian. 1936ko irailaren 21ean sartu ziren tropa faxistak Elgoibarren. Lagun asko hil eta zauritu ziren gerran eta beste asko kartzelan sartu edo kontzentrazio esparruetara eramane zituzten. Beste askok errepresio bortitza jasan zuten eta emakumeak eta umeak izan ziren horietako asko. Ehun lagunetik gorako zerrenda dute oraino, eta [elgoibar1936.info](http://elgoibar1936.info) webgunean argitaratu dute. Zerrenda hori osatzeko herritarren laguntza eskatu dute. Senideak edo intereseko informazioa dutenak 605 772 285 telefono zenbakira edo [elgoibar1936@gmail.com](mailto:elgoibar1936@gmail.com) helbidera idatzita jarri daitezke taldekoekin harremanetan.







*Herriak bizirik mantentzea gure esku ere badago!  
 Arduraz kontsumitzea herrian kontsumitzea da, orain inoiz baino gehiago.*

**Herrian erosi, herrian bizi!**





## MERKATARITZA



### CARMEN RODRIGUEZ, Hair's ile-apaindegikoa

"Ile-apaindegia itxita daukat eta zerbitzua erabat etenda. Ez daukat diru-sarrerarik eta gastuak berdin-berdin ordaindu behar ditut. Ura kobratu didate, argia, BEZa, langileen gizarte segurantz... Es-

kerrak lokalaren jabeak ez didala alokairurik kobratuko hau guztia bukatu arte. Hasieran esan zutenean ile-apaindegiak zabalik mantenduko zirela, izutu egin nintzen. Negozioa itxita edukitzea gogorra da, baina gure osasuna jokoan jartzeak beldur handia eman zidan. Badakit beste batzuk ari direla etxetara produktuak saltzen, baina gu ez, horrek ere azkenean kalera irtetea eskatzen duelako. Gainera, langileak ERTEN gaude, eta egoera horretan ezin dugu lanik egin. Bezeroen telefono deiak jasotzen ditut, hori bai, eta txandak ematen ari naiz ile-apaindegia zabaltzen dugunerako. Ez dakigu noiz zabalduko dugun, baina gu hasi gara babes neurriak nola hartu pentsatzen. Gauzak ez dira lehen bezalakoak izango, eta beste modu batean lan egiten ikasi beharko dugu. Gu hiru langile gara, baina bat amatasun baimenarekin dago, beraz, bi

hasiko gara lanean. Horrek distantziak mantentzen lagunduko digu. Nik aurreikusi dut langile bakoitzak bezero bat hartuko duela, eta ez dela inor egongo lokalean zain. Bezeroak irten ahala sartuko dira hurrengoak. Lana moteldu egingo zaigula esango nuke, eta seguruenik ordutegia zabaldu beharko dugu. Jendea denbora luzean dago ile-apaindegira joan gabe, eta jendeak beharra dauka. Hasierako egunetan zoramena izango da, baina ohitu beharko gara. Higiene neurriak ere hartuko ditugu: sarreran eskuak garbitzeko gela jarriko dut bezeroentzat, denok maskarekin ibiliko gara, bai gu eta baita bezeroak ere, ilea mozteko jartzen dugun kapa erabili eta botatzekoa izango da, buruak eskularruekin garbituko ditugu, eta lanerako erabiltzen dugun arropa han bertan utziko dugu, etxera eraman gabe. Guk horrelako neurriak aurreikusi ditugu, baina ez dakit gero beste arau batzuk jarriko dituzten. Egoera zaila dator, baina denon artean gaituzteko dugu. Espero dut birusaren kontrako txertoa lehenbailehen sortzea eta gaixotasuna kontrolatzea, bestela, hau ez da sekula bukatuko. Guzti honek behintzat deskantsatzeko aukera eman dit. Hori da egoera honi ikusten diodan alde positiboa".



### LEIRE ARRIOLA, Mendaroko Leire jantzi dendakoa

"Martxoaren 14tik itxita daukat denda. Nik neuk ez daukat aholkularitza zerbitzurik kontratatuta eta entzun dudanaren arabera hartu ditut erabakiak. Bakardade handia sentitzen dut.

Orokorrean beti, baina egoera honetan gehiago. Nora jo ez dakigula ibiltzen gara gure tamainakoak. Mendaron ez dago merkataritza elkarterik, gainera. Hori duten herrietan nik uste dut elkarri laguntzeko bidea izan dezaketela, baina ez da gure kasua. Konfinamenduan whatsapp talde bat sortu dugu Mendaroko dendariok, eta babes-halako bat da, baina horixe, gehiago ez!. Eta bai, nik ere kontrata dezaket aholkularia, baina iruditzen zait instituzio publikoetatik eman beharko zizkigutela argibideak zuzenean, gu hemen eta han bila hasi ordez. Urruti ikusten dut normaltasunera buelta. Inigo Urkulluk esan zuen apirilaren 27an nahi zuela denda txikiak zabaltzen hastea, baina geroztik ez diot ezer entzun. Itxura guztien arabera maiatzaren erdialdera arte ezingo dugu ireki. Eta merkataritza txikiak lehen geunden egoera onean, ba egin kontu nola gauden orain! Gastuak berdin-berdin ari gara ordaintzen. Ni zortekoa naiz lokala neurea

delako, eta hori behintzat ez dut ordaindu behar baina horixe. Orain, gainera, udaberriko arropak jasoko ditugu eta fakturak ordaindu beharko ditugu. Gizarte segurantzara eskatu nuen laguntza, mutua bitartez, eta gutxiengo bat onartu zidaten, baina hutsa da. beste dirulaguntzak ezin ditut eskatu, hala ere, errentamendu-kontratu bat izan behar duelako eskatzaileak eta nik ez daukaladako. Dena den, eskatzen dituzten aurreneko batzuentzako baino ez dira laguntzak eta horrek sortzen du geure artean lehia ibili behar bat. Nik ezin dut barruko arroparik saldu, baina badakit Amazonek etxeraino ekarriko dizkiola eskatzen duenari. Eta horrek zer dakar? Ohitura batzuk sortzea. Lehen ere galdua geneukan borroka hori, baina egoera hau luzatzeak ohiturak errotzea ekarriko du eta horrek gure azkena dakar. Herrialde batzuetan debekatu diete handiei derrigorrezkoak ez diren produktuak saltzea, eta ondo legoke hori honako ere, baina nolana ere nork kontrolatzen du hori? Iruditzen zait herritarrek ere ez direla oso kontziente. Udalarekin dugun harreman ere hutsa da. Herenegun (hilaren 22an) deitu ziguten galdeztzeko zein egoeratan gauden eta higienerako gelak-eta eskaintzeko, eta eskertzen da, jakina, baina besterik ez dut jaso nik. Denda irekita neukala pentsatzen zuten..



## MADDALEN BERGARA, Aldaz hortz klinikako dentista

"Gobernuak konfinamendua agindu zuenean esan zuen hortz klinikak ez zirela erabat itxiko, eta larrialdiei erantzun egin behar geniola. Kontua da larrialdiak hartzen bakarrik ezin dela hortz klinika

bere horretan mantendu. Aldazen hiru klinika ditugu, Elgoibarkoa, Lasartekoa eta Tolosakoa, eta erabaki genuen Lasartekoa mantentzea larrialdietarako. Elgoibarko bezeroren batek larrialdiren bat badauka ere, Lasartera deitu behar du, eta handik jakinarazten didate niri. Momentuz jaso ditugun larrialdi gehienak telefonoz soluzionatzekoak izan dira, antibiotikoren batekin edo beste botikaren batekin. Beraz, pare bat langile kenduta, beste guztiak ERTEn gaude. Ez dakigu noiz hasiko garen berriz lanean, inork ez digu ezer esaten. Baina badirudi denda txikiak maitatzaren erdialderako zabalduko dituztela, beraz, uste dugu gu ere buelta horretan hasiko garela, eta duela pare bat aste hasi ginen itzulerarako protokoloa prestatzen. Lehenik eta behin, laborategi batekin jarri gara harremanetan langile guztioi koronabirusaren testak egiteko, langileak eta bezeroak babesteko. Testak guk ordaintzeko

asmoa geneukan, baina laborategiak esan zigun osasun alorreko langileei doan egiten dizkietela. Bestalde, Espainiako Odontologia Kontseiluak birusaren kontrako protokolo bat sortu du, eta hori barneratzen ari gara. Egia da guk lehendik ere higiena asko zaintzen genuela. Dena esterilizatu eta desinfektatzen genuen, baina oraingoa birus berri bat da eta desberdin hedatzen denez, babes neurri gehiago hartu behar ditugu. Langileok talde txikitik banatuta gaude bakoitza bere alorreko protokoloa lantzen, eta hori komunean jartzen dugu bideokonferentzia bidez, denok jakiteko zein izango den klinikako protokoloa. Horrez gain, uste dugu Gobernuak lanerako beste arau batzuk ere zehaztuko dituela eta horiek ere bete beharko ditugula. Itxaron-gelan ere jende kopurua murriztu egin beharko dugu, eta aztertzen ari gara baita ere bezeroak ahalik eta gutxien etortzeko klinikara, bakoitzari lan gehiago egitea etortzen den bakoitzean. Guk nahi duguna da bezeroak seguru sentitzea gure klinikan eta lasai etortzea guregana. Babes neurriak zaintzeko materiala lortzea arazo bilakatu zaigu, oso gutxi iristen zaigu eta oso garesti, gainera. Momentu gogorak datoz eta denok moldatu beharko gara egoera berrira, baina denon artean irtengo gara poliki-poliki".



## JOSE ANTONIO GONZALEZ, Jose Antonio ile-apaindegikoa

### ◆ Hilabete pasa da ile-apaindegia itxi zenuela. Zein egoeratan zaudete?

Ekonomikoki egoera gogorra da, baina uste dut une honetan osasunari begiratu behar diogula,

bai geureari eta baita bezeroenari. Derrigorrezkoa zen gizartea geratzea, bestela ez genion egoerari buelta emango. Ni autonomia naiz eta aktibitatea eteteagatik Espainiako Gobernuak eskaintzen duen dirulaguntza eskatu dut eta nire langilea ERTEn dago.

### ◆ Ile apaintzaileek badute etxeetara hainbat zerbitzu eskaintzeko aukera. Ari zara zerbait egiten?

Beren kabuz burua garbitzerik ez dutenen etxeetara joan gaitzke burua garbitu eta ilea moztera, baina niri ez zait burutik pasatu ere egin. Oso arriskutsua iruditzen zait, hain zuzen ere, adinekoak direlako koronabirusaren aurrean arrisku handiena dutenak. Etxeetara produktuak ere saltzen dituzte batzuek, baina guk ez.

### ◆ Herritar asko astero joaten dira ile-apaindegira. Jaso al duzu bezeroen deirik zure beharra dutela esanez?

Gurea gizonezkoen ile-apaindegia da, eta gizonezkoak ez



dira hain sarri etortzen. Batzuek geratu izan naute kalean galdezko ea noiz zabalduko dudun, baina oro har, nahiko lasai daude nire bezeroak. Egia da denbora luzez dagoela jendea ile-apaindegira joan gabe, eta zabaltzen dugunean ez dakit zer izango den. Espero dut denak hartzeko moduan egotea. Ez dut uste ile-apaindegia zabaldu eta berehala etorriko direnik guztiak. Ilea mozteko beharra izango dute, baina gertutasunak eta ileapaintzaile-bezero arteko kontaktuak beldurra sortu dezakeela uste dut. Esango nuke bezero askok denbora bat itxarongo dutela ile-apaindegira joateko.

### ◆ Itzulerarako babes neurriak nola hartuko dituzun pentsatu duzu?

Bai, pentsatuta daukat gutxi gorabehera. Gure lokala nahiko handia da eta distantziak gordetzeko arazorik ez dut ikusten. Lehendik ere erabili eta botatzeko material asko erabiltzen genuen, eta orain are gehiago erabili beharko dugu, bezeroen segurtasuna mantentzeko.

### ◆ Besterik?

Animoak eman nahi dizkiet elgoibartarrei. Irtengo gara, eta hilabete batzuk barru normaltasunez funtzionatuko dugu berriz. Espero dut guzti honetatik ikasi izana osasunik gabe beste guztiak erortzen dela. Kontuan hartu dezatela agintariak.



## HEZKUNTZA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ikasturteari amaiera emateko daukan lan plana aurkeztu zuen joan zen astean. Egoera honen aurrean, Elgoibar Ikastolako eta Elgoibar BH Institutuko zuzendariei eman diegu hitza.

AINHOA ANDONEGI



### JABIER LARRAÑAGA, Elgoibar Ikastolako zuzendaria

♦ **Espainiako Gobernuak esan du inork ez duela galduko ikasturtea koronabirusagatik eta errepikatzea salbuespena izango dela.**

Errepikatzea beti izan da, mailaz maila, salbuespenezko neurria, errepikatzea

jarritako helburuak lortzeko finkatuta zegoen denboraldia lutzatzeko tresna baita. Ebaluazioaren helburua ikasle bakoitzaren ikasketa prozesuan laguntzea eta ondoren eman beharreko urratsak definitzeko argibideak ematea da. Eta, azken finean, hori da promozio erabakiak hartzeko erabiltzen den irizpidea. Elgoibar ikastolan egoera lehertu bezain pronto ahalegindu ginen ingurune berrira egokitzen. Lehenengo aldiari, jakinda praktikoki bigarren ebaluazio aldiari amaiera ematen ari ginela, hori itxi eta abian zauden gaien sakontze lanetan jardun genuen. Oporren aurretik aztertu genituen egoerak ekar zitzakeen ebaluazio-aukerak, eta, horren ondorioz, gure ahalegina ikasturteko eduki funtsezkoenak indartzean jarri zen eta, datorren ikasturteari begira, giltzarriak diren edukiak ongi hautatzen. Eta hori da aurreikusten duguna azken ebaluazio aldiari begira: indartzea dagoeneko landutako eduki nagusienak eta lantzeari ekitea, berri bezala, datorren ikasturterako nahitaezkoa izan daitekeen hori. Hori bai, ahalik eta ondoen neurtuta egoerak eskaintzen dituen aukerak. Hori aurreikusi genuenean garbi genuen hartzen zen erabakia bata ala bestea izan (ebaluazioari begira ikastetxe bakoitzaren autonomia gehiago ala gutxiago errespetatzea edota Administrazioak bere gain hartzea irteera komun bat), egiten genuen planteamendua hirugarren hiru hilekoari begira baliogarria izango zela, azken batean, ikasleen prestakuntzan sakontzea zekarrelako, era neurtu eta posibilista batean. Eman diren irizpideak, batetik edo bestetik, ez daude oso urrutik horretatik.

♦ **Irakasle batzuek ebaluatze moduan zailtasunak ikusten dituzte, eta hori bera aipatu dute ikastolen elkartetik ere.**

Ebaluatzea ez da inoiz erraza izan. Ebaluazioak ikasleari *feedback* egokia emateko balio behar du, ikasketa prozesua egoki bideratzen eta aurreratzen laguntzeko. Egungo egoerak egokitze bat eskatzen du zenbait ebaluazio tresnetan. Baina kontuan hartu behar dugu egungo ebaluazioa etengabea dela, eta ikaste-irakaste prozesuan zehar egiten diren jardunen segimenduan oinarritzen dela. Eta hori ez da orain eman, aurretik ari gara era horretan lanean eta ikuspegi hezitzailean sakontzen. Baina halere, aurrez aurre ez aritzeak, behartzen gaitu erabiltzen diren hainbat tresna ordezkatzeko edota moldatzeko, baina funtsean ebaluazioaren ikuspegi berbera mantentzen dugu. Garbi dagoena da inork ez duela ebaluazio negatiborik izango koronabirusaren eragin soilarengatik.

Ikasturteak emandakoa kontuan hartuko da (ikasturtearen bi herenak normalitate osoz eman dira), lehenengo bi ebaluazio aldien bila-kaera batik bat. Bestalde, konfinamendu garaian egindakoa egoki ponderatuko da eta erabaki egokiarena hartuko da, ikasle bakoitzak ondorengo ikasketak ahalik eta egokien bidera ditzan.

♦ **Konfinamenduan telematikoki ari dira irakasleak ikasleekin harremanetan. Nola moldatzen dira?**

Hasteko esan beharra dago ikasleek eman duten erantzuna, oro har, oso ona izan dela, benetan txalogarria. Eskertu, bestalde, familiek emandako jarraipena eta laguntza, jakin baitakigu esfortzu handia izan dela guztientzat, hainbat egiteko pilatu zaizkigunean etxeko txokoa hain era deseroso eta zailan. Eta, nola ez, aitari profesionalak erakutsi duten erantzukizuna, prestutasuna eta arintasuna egun batetik bestera lan egiteko era aldatu eta hezkuntza jardunari segida emateko. Elgoibar Ikastolak esperientzia luzetxo zuen hainbat mailatan material eta plataforma digitalen erabilera. 2012tik aurrera material digitala erabiltzen ari ginen DBHn on-line plataformen gainean. Ondorengo urteetan, hori goitik behera hedatzen joan da Lehen Hezkuntzan zehar. Bestalde, bertako profesionalak ohituta daude hainbat aplikazio eta plataformen erabilera, 2014an Ikastolak ICTn heldutasun-maila aurreratua lortu zuen, eta esperientzia hori guztia oso lagungarria izan da egungo egoera honetan moldatzeko. Era ezberdinean ikasi eta irakastera behartuta gaude, hain zuzen ere, gure nahia apendizai esperientzia eraginkorra bezain positibo lortzea baita. Konpetentzien lantzean oinarritutako pedagogiak ditugun ezagutzak era integratuan egoera berrietan aplikatzen jakitea helburutzat jartzen badu, egungo egoerak hori era nabarmen eta intentsitate handian aplikatzeko tesitura ekarri digu guztioi, ikasleei, familiei eta irakaskuntzako profesionalari. Egoera guztiz berri batean aplikatzen ari gara egun ditugun ezagutzak eta, aldi berean, ahalegintzen ari gara, egoerak hala eskatuta, ezagutza berriak eskuratzen. Hainbat aspektutan jauzi nabarmena emango da, autodiziplina mailan, autonomia arloan, kooperazio lanean, hezkuntza komunitate osoaren elkarlanean, erantzukizun mailan, baliabide teknologikoen erreminta izaera barneratzen eta horrela erabiltzen... Hala eta guztiz esan behar da lan eskerga suposatuta duela honek guztiak, batik bat, familiekin komunikazioa mantentzeko, ikasleei beharren arabera laguntza eta *feedback* egokia bideratzeko. Lehenengo astetik hasita beharra duten ikasleen eskura dispositiboak jartzen joan gara, etxetik lanean jarraitu ahal izan dezaten. Eta orain, opor itzulian, beste entrega berri bat ere prestatuta dugu. Eta hainbat kasutan, familien ezaugarriak eta egoerei begira, hainbat berariazko dinamika eta komunikazio planteamendu egokituak ere bideratu dira.



## IÑAKI ODRIOZOLA, Elgoibar BH Institutuko zuzendaria

### ♦ Espainiako Gobernuak esan du inork ez duela galduko ikasturtea koronabirusagatik eta errepikatzea salbuespena izango dela.

Institutuan errepikatzea beti izan da salbuespena. Urtean zehar,

ahalmen eta baliabide guztiak jartzen ditugu ikasleek mailaka jarritako helburu horietara heltzeko, eta inork ez dezan urtea galdu. Etengabe entzuten dugu hezkuntza komunitate guztia estututa dagoela ikasturtea galtzeko arriskuaz. Bada, nik esan nahi diet guztiei lasaitzeko. Konfinamendua luzea egiten ari zaigu, eta ematen du joan zen urtetik gaudela etxeratuta. Ez da horrela. Ikasturtea irailean hasi zen eta martxora arte (7 hilabeteetan), edukiak kontuan hartuta, bi hiruhileko oso eman ditugu: hau da, ikasturtearen %70. Beraz, azken %30 hori da emateko geratu dena. Eta gaitasunei dagokienez ere (DBHn gaitasunak dira inportanteak eta ez edukiak), ziur nago ikasturtean zehar gaitasun denak landu direla. Azken zati hau beste modu batean ematen ari gara, era telematikoan, lanen bidez, e-mail bidez, classroom edo moodle bidez... eta erdia emango bagenu ere, ikasturteko %85-90eko edukiak eta gaitasunak garatzeko ariketa guztiak emango ditugu. Horregatik, lasai hartzeko eskatzen dizuegu.

### ♦ Ebaluaketarako lehen bi hiruhilekoak hartuko dira bereziki kontuan.

Ebaluazioak nola egin da asko aipatzen den ustezko arazoa, baina irakasleek ebaluazioak egiteko hainbat tresna daukate. Beti ari gara esaten azterketak ez direla ebaluatzeke modu bakarra, eta orain demostratuko da hori: lanak, aurkezpenak (on-line,) galdeketa, autoebaluazioak, eta, behar bada, azterketak ere izango dira ebaluazio bideak. Horrek esan nahi du irakasleak etxetik lan handia egiten ari direla: ikasleekin kontaktu telematikoak egin, lanak eskatu, jaso, zuzendu, batzuetan bideokonferentziaz klaseak eman... Egia izan daiteke gure baliabide teknologikoak ez izatea onenak (batzuetan konexioak huts egiten du, besteetan blokeatu egiten da, beste batzuetan korreoak jasotzeko zailtasunak daude...), baina nik uste irakasle asko ordu gehiago sartzen ari direla, goiz eta arratsalde, egoera honi aurre egiteko. Hortaz, ondo egindako aurreneko bi hiru-hilabetekoak izango dira oinarri, baina hirugarrenean egindako lan guztia ere kontuan hartuko da, notak hobetzeko edo eduki eta gaitasunetan sakontzeko. Gainera, lehenengo bi hiru-hilabetekoetan gaizki ibili direnek ere izango dute orain hori gainditzeko aukera, urtea ez galtzeko.

### ♦ DBH4koak, Batxilergoak eta Lanbide Heziketako ikasleak eskolara bueltatzeko aukera aipatu du Jaurilaritzak. Nola ikusten duzue hori?

Ez dakigu aipatu duten itzulera hori nolakoa izango den, eta nola egin daitekeen asmatu beharko dugu, beti ere osasun neurriak beteaz. Aipatuko dut, nahiz eta ezin dudan baieztatu, DBHn behintzat, estu dabilzanek eta laguntza behar dutenek izango dutela lehentasuna, gela osoa ezingo baita sartu, eta hirutan banatuz gero, klaseak hirukoiztu egin beharko lirateke-elako; ezinezkoa, bistan denez. Batxilerran ere, antzekoa da egoera. Pentsatzen dut ikasturtea amaituta egongo dela konfinamendua amaitu orduko, eta orduan behar bereziak dituztenak ikastetxera hurbiltzea izango litzateke logikoena. Bestalde, 2. Batxilergokoak Selektibitatea daukate uztailearen hasieran. Dagoeneko EHuko arduradunek bidali dizkigute aurtengo azterketak nolakoak izango diren, eta alde horretatik ere, ikasle eta gurasoei lasaitzeko esango nieke. Alde batetik, irekiagoak izango direlako, aukera gehiagorekin. Bestalde, aipatu nahiko nuke irakasleek egin duten esfortzua, izan ere, gehienek eduki guztiak emango dituzte telematikoki ikasturtearen ohiko klase datetan. Beraz, erreparatzeko denbora gehiago izango dute ikasleek uztailean arte.

### ♦ Nola moldatzen dira irakasle eta ikasleak klaseak telematikoki eman eta jasotzeko?

Lehen aipatu dut irakasleek izan dituztela zenbait arazo, eta ikasleek ere bai. Ikasle batzuk ez daukate beharrezko gailurik etxean. Etxe horiek detektatu eta 16 ordenadore banatu ditu Institutuak, ikasle horiek martxa galdu ez dezaten. Badakigu Udalak ikasle bati gutxienez etxean wifia jarri diola. Baina salbuespenak dira. Ikasle eta irakasle eta, batez ere, tutoreen arteko harremana estua izaten ari da. Gero dago ikasleek gurasoei zer esaten dieten, edo hauek zer ulertzen duten: bitxia bada ere, aste honetan izan dugu guraso bat kexu bere alabari ia ez geniolako lanik ematen. Bestalde, familia denak daukate eskuko telefonoa, eta horri esker kontaktua ia familia guztietara heldu da. INIKA programaren bidez sakelakoe telefonoetara eta ordenadoreetara zuzenean heltzen dira abisuak. Ikasle eta guraso guztiak daukate ikastetxeeko kodeak, eta egunero sartu ahal dira, eta tutorearekin, irakasleekin edo zuzendaritzarekin harremanetan jarri.

### ♦ Ikasturtea dagokion datan amaituko dutela ere esan dute, baina udan errefortzurako eskaintza egiteko aukera izango dutela ikastetxeek. Aurreikusten duzue horrelako saiarik?

Aurreikusita dago mailako helburuak lortu ez dituzten ikasleek udan errefortzuak izatea, edo gutxienez, lan batzuk egin beharko dituzte, datorren ikasturteari begira martxarrik ez galtzeko. Baina oraindik goiz da horri buruz hitz egiteko, ez dakigu ikasturte bukaera nola etorriko den-eta. Esan duguna: koronabirusagatik inork ez du ikasturtea galduko. Beraz, animo, denon artean gaindituko dugu-eta.

# HAURRAK

40 egunetik gora etxean egon ondoren, 14 urtetik beherako umeak domekan irten ziren kalera, eta hemendik aurrera egunero izango dute pasatzera irteteko aukera. Heldu bat gehienez hiru umekin irten daiteke, etxetik kilometro bateko distantziara eta gehienez, ordubetez. Umeek jostailuak atera ditzakete, baina ezin dituzte beste umeekin partekatu, ezin dute beste familia eta umeekin elkartu eta distantziak mantendu behar dituzte. Orriotan kontatu digute umeek nola bizi izan duten konfinamendua.

AINHOA ANDONEGI / AINARA ARGOITIA

## JAKES ETA JOANE UNAMUNO

13 eta 10 urte, Elgoibar

**1.** Gogorra, oso gogorra izan da etxetik irten gabe 40 egun baino gehiago egotea. Kalera ezin irteaz gainera, lagunekin ezin egotea izan da okerrera. Eta lanak bideo-deiekin egitea ere ez da erraza izan. Playan jolasten ere egon naiz egun hauetan, baina asko aspertu naiz.

**2.** Kalera irten nintzen lehen eguna, domekakoa, ez dut ahaztuko. Pozik esnatu nintzen kalera irten ahal ginelako.

Bueno, egia esan behar badut, ez neukan kalera irteteko gogorik, ohitu egin bainaiz etxean egotera. Baina gero oso ondo pasatu nuen, gozatu egin nuen. Eta ez nuen beldurrik eduki.

## ALAIN ETA MARIA BASTIDA

12 eta 10 urte, Mendaro



**1.** Egin ditugu eskulanak, pizzak... gauza asko. Etxe atzean txorrientzako etxeak jarri genituen eta kaskabeltzak abia jarri digu. Atzeko zelaira orkatza ere etorri da eta egin dizkiogu argazkiak eta. Balkoian ere egin genuen lo behin eta barruan ere zabaldu genuen kanpina beste baten. Balkoian lo egitea ez da mendian lo egitea, kamioien zarata handia dagoelako, baina...

**2.** Pozik gaude kalera irteteko baimenarekin. Igandean Ospas gainera joan ginen aitarekin. Kamerak jartzen ditugu han animaliak ikusteko eta ikusi ditugu basurdeak umeekin, azeria, hontza, azkonarra... Hau amaitutakoan Gorbeara joan nahiko genuke.

## PAUL LOPEZ

12 urte, Mendaro



**1.** Nahiko ondo daramat konfinamendua. Aspertzen naiz tarteka, eta estresatu ere bai etxekolaneekin, baina saiatzen naiz entretenitzeko bidea topatzen. Irakasleak ez dira konturatzen bakoitzak gauza gutxi bidali arren guk denek egin

behar ditugula. Hori da okerrera. Bestela eskulanak egiten jardun naiz eta bideoak editatzen, hori delako gehien gustatzen zaidana.

**2.** Igandea berezia izan zen. Kalera irten nintzanean eraikinak ere handiagoak iruditu zitzaizkidan. Amama eta aitxitxarengana egin genuen lehenengo bisita. Distantziak mantendu genituen, baina behintzat aurrez aurre ikusi ahal izan nituen, eta pozik.

## ALEX ETA TERESA INES ROLDAN

Elgoibar, 12 eta 4 urte



**1.** Uste genuena baino hobeto egon gara etxean. Aurpegia margotzen ibili gara, puzzleak egin ditugu, eskulanak ere bai, lagunekin jolastu gara on-line, senideekin bideo-deiak egin ditugu eta pastelak ere egin ditugu. Balkoia ere badaukagu eta nahiz eta txikia izan, han bazkaldu eta afaldu dugu egun batzuetan, oso pozik. Ikastolako lanak ere ordenagailuz egin ditut, arazorik gabe. Nire anaia nagusia ere pozik egon da.

**2.** Pozik jarri gara. Teresa Ines ondo dago gurasoekin, baina nik badaukat lagunak ikusteko gogo. Kalera irteera ondo dago, baina oraindik ezin naiz lagunekin egon, eta hori pena bat da.

## 1. Zer egin duzu konfinamenduan?

## 2. Nola hartu duzu kalera irteteko baimena?

**JUNE ALONSO**  
4 urte, Elgoibar



**1.** Egun asko izan dira, baina ondo moldatu gara etxealdian. Eskulan asko egin ditut gurasoekin, eta ez naiz gehiegi aspertu. Sukaldean ere aritu gara, pastelak-eta egiten, eta oso ondo irten zaizkigu. Oso goxoak.

**2.** Oso pozik jarri nintzen kalera irteteko aukera gurela jakin nuenean, eta amari galdetu nion lehenengo gauza izan zen ea parkera joan eta lagunekin jolasterik bageneukan. Ezetz erantzun zidan, oraindik ez daukagula horretarako baimenik, eta pena hartu nuen. Kalera irteteaz gain lagunak ikusi eta beraiekin jolasteko gogoia daukat.

**ILUNE RICO**  
10 urte, Mendara



**1.** Terraza daukagu etxean eta nahiko ondo daramat, baina lagunen falta handia daukat. Etxean eskulan pila bat egin ditugu eta kirola ere bai, lokotx batzen-eta. Koronamaloa ere egin genuen eta konfinamenduko lehenengo hamar egunetan albistegi bat ere sortu genuen kuadrilakoekin. Lukenek eta Libek sortu zuten Garagar-tza telebista eta berriemaile lanak egin ditugu guk.

**2.** Igandea oso polita izan zen. Bazkalostean irten nintzen kalera aitarekin lorak biltzera. Irten ginenean Maddi eta Irati lagunak gloatuak bota zizkiguten etetik eta kalean beste lagun batzuk ere ikusi nituen. Muxuak bidali genizkien elkarri, baina urrutitik. Pena.


**AIUR ETA LUAR OTERO**  
9 eta 5 urte, Mendara



**1.** Aspertuta gaude etxean egoteaz. Anaia txikia beti ari zait zirikitzen, gainera. Etxean gauza asko egin ditugu denok, baina nik lagunekin egon nahi dut. Goizetan etxeko lanak egiten ditut, eta gero bizkotxoak, pizzak, eskulanak... egin ditugu. Kanpina ere zabaldu genuen behin etxean eta Aupa Etxebeste ere egin dugu.



**2.** Igandea egun berezia izan zen kalera irten ahal izan ginelako hainbeste egun etxean egon eta gero. Baloia hartu eta aitarekin joan nintzen futboleko jolastera, eta sei lagun ikusi nituen kalean. Bideokonferentziak-eta egin ditugu lagunekin, baina nik kalean ikusi nahi ditut eta haiekin jolastu, ez orain bezala, ikusi bakarrik.

**LORENA ETA MAITANE ETXANIZ**  
16 eta 12 urte, Elgoibar



**1.** Etxealdia luze joan da, baina ondo egon gara. Eskolako lanak egin eta ikasteko aprobetxatu dugu denbora. Pianoa eta biolina jo ditugu, kirola ere egin dugu etxean, telesailak ikusi ditugu elkarrekin ordenagailuan... Ez gara aspertu eta gustura egon gara.

**2.** Kalera irteteko baimena ondo hartu dugu, baina ez da hori guk nahi genukeen baimena. Guk osaba-izebak eta lehengusuak bisitatu nahi ditugu, eta lagunekin irten nahi dugu kalera. Gurasoekin paseatzera irtetea ez dago gaizki, baina lagunekin egoteko gogo handiagoa daukagu.



# HAURRAK





**LANA.....**

**Eskaerak**

Adinekoak zainduko nituzke. Arduratsua naiz. Aste-buruetan edo etxeko langile moduan jarduteko prest nago. ☎ 632 355 103

Eskola partikularrak emateko edo umeak zaintzeko prest nago. Elgoibartarra naiz eta Magisteritza ikasten ari naiz. ☎ 684 221 398

**ETXEBIZITZAK.....**

**Alokairua**

Bikote elgoibartarrak prezio arrazoizkoa duen pisua hartuko luke alokairuan. Etxe baten jabea bazara edo etxea alokairuan duen norbait ezagutzen baduzu, deitu mesedez.

☎ 619 966 696

**BESTELAKOAK.....**

Offiprix markako sei mahaiko mahai multzoa salgai. Oso egoera onean. 600 euro.

☎ 688 634 044

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

# MILARBIRE

## EZOHIKO GUTXIENENKO ZERBITZUAK

Behar-beharrezko etxetresna elektrikoak.

Ahal den neurrian, etxez etxeko zerbitzuari eutsiko diogu.

Arreta ematen jarraituko dugu telefono zenbaki honetan:

# 943 741 487



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Negocios  
Euzko Eskola Administratiboren Erakunde Komunitarioa



**ROSA Ma PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Gure atarian, barrua berritzen ari dira etxebizitza batean, eta, antza, gelak bereizteko paretak edo trenkadak kentzen ari dira. Horrelako jarduerak egin daitezkeen jakin nahi nuke.**

Oro har, ezin da inolako obrarik egin higiezinaren edozein egitura-elementuren gainean, komunitateko kideek aho batez onartu ezean.

Karga-hormak higiezinaren elementu komunak dira, eraikinaren egituraren osagai diren aldetik, eta eraikinaren kanpoaldean ez ezik, itxitura-funtzioak ere bete ditzakete barrualdean ere. Baina nahiz eta egitura-zereginik ez bete, badira beste horma edo trenkada batzuk eraikinaren gelak kanpotik mugatzeko balio dutenak, komunak edo pribatiboak izan. Fatxada kanpotik ikus badaitezke, elementu komunak izango dira.

Itxiturako pareta edo fatxada horiek ezin dira eraitsi, ez osorik, ez partzialki kanpoaldearekin eta aldameneko eraikinekin komunikatzeko, komunitateko kideen aho bateko adostasuna lortzen ez bada, nahiz eta lan horiek kaltegabeak izan. Horma horiek eraikina perimetroan mugatzeko balio dute, eta jabe indibidualak ezin ditu muga horiek bere kabuz aldatu.

Azkenik, jakinarazi nahi dizut eraikineko hormen kanpoaldean ezin dela zorrotzetarako, tximinietarako, publizitate-karteleterako edo bestelakoe-tarako eroanbide berririk jarri komunitateko kideek aho batez onartu gabe.

**Ondorioa. Egituraren gaineko jarduera txikien irismena zehazten hasteak haren tratamendua betetzea ezinezkoa den kasuistika batean sartzea eskatzen du.**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.




Gure printzesa maiteak dagoeneko 8 urte! Zorionak, **Eilene**, izugarri maite zaituen familia osoaren partez.



Zorionak, **Martín!** Bihar 6 urte! Ondo-ondo pasadenon partez. Maite zaitugu.



Zorionak, **Iker**, maiatzaren 4an 6 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta lagunen partez.



Zorionak, **Harritz**, maiatzaren 6an 9 urte beteko dituzulako. Familiakoen eta lagunen partez.



Zorionak, **Paula**, 10 urte bete dituzulako. Etxekoen partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Jon**, domekan 9 urte beteko dituzulako. Mila muxu, familiako guztien partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Alarma egoerak irauten duen bitartean, Elgoibarren guardiako botikarik ez dagoen jai egunetan Yudego farmazia zabalik egongo da, 10:00etatik 13:00etara.

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
1 BARIKAKUA	2 ZAPATUA	3 DOMEKA	4 ASTELEHENA	5 MARTITZENA	6 EGUAZTENA	7 EGUENA	8 BARIKAKUA
Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez <b>Ibañez</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Arriola</b>	Egunez <b>Fernandez</b>	Egunez <b>Yudego</b>
Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Arriola</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Arriola</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>
* Fernandez: Herriko enparantza, 4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142		* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638		* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384		Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00 Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar) 943 206 984	

## Apirilaren 15etik 30era hildakoak

### • Agustin Gorostiza Garate

83 urte. Apirilaren 15ean hil zen. Elgoibar.

### • Jose Ignacio Torres Ibañez

63 urte. Apirilaren 15ean hil zen. Elgoibar.

### • Oier Etxaniz Beneitez

31 urte. Apirilaren 17an hil zen. Elgoibar.

### • Esteban Elorza Ansola

82 urte. Apirilaren 18an hil zen. Mendaro.

### • Ioseba Arrizabalaga Mendikute

43 urte. Apirilaren 19an hil zen. Elgoibar.

### • Jose Urrutia Etxabe

86 urte. Apirilaren 21ean hil zen. Elgoibar.

### • Maria Asuncion Mendikute Zubiaurre

71 urte. Apirilaren 21ean hil zen. Elgoibar.

### • Ana Maria Etxabe Ostolaza

71 urte. Apirilaren 25ean hil zen. Elgoibar.



## *Maria Asuncion Mendikute Zubiaurre*

2020ko apirilaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.

*Minak dakarren isilunea  
bizitzaren ilunabarra.  
Sortu den hutsuneak  
ez du itzaliko su garra.  
Bizitzari aurre egiteko  
eredugarri zure lan eta indarra.  
Gogoan geldituko da  
betiko zure irrifarra.  
Maite zaitugu,  
zerutik begira zauden izarra.*

Etxekoak



## *Mariasun Mendikute Zubiaurre*

2020ko apirilaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.

*Zure borondate ona, zintzotasuna eta prestutasuna  
ez ditugu inoiz ahaztuko.*

Kuadrillako betiko lagunak



## *Maria Asuncion Mendikute Zubiaurre*

2020ko apirilaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.

*Izan zarenagatik eta erakutsi duzunagatik  
ez zaitugu inoiz ahaztuko.*



## 2020-21 Batxilergoako aurrematrikula Maiatzaren 4tik 22ra

### BATXILERGOA (BH)



Gizarte Zientziak  
Humanitateak



Osasun Zientziak  
Zientziak eta Teknika



Artistiko Musikala



**ON-LINE ESKABIDEA: MAIATZAREN 4TIK 21ERA.**  
**ESKABIDEA IKASTETXEAN: MAIATZAREN 11TIK 22RA.**

943 899 316

013431aa@hezkuntza.net

